

KONTSUMO ARDURATSUARI BURUZKO ASTEA
(Iruñeko Alde Zaharrean)

Aldezar, Ekologistak Martxan eta OCSI elkarteok kontsumo arduratsuari buruzko astea antolatu dugu, Iruñean diren zenbait esperientzia aurkezteko, bizimodu kontsumistaren alternatiben erakusgarri. Hauexek izanen dira eginen ditugun jarduerak:

Apirilak 20, astelehena: Truke guneen irekitzea, elkarte antolatzaileon lokaletan (Aldezar, Ekologistak Martxan eta OCSI). Irekitzea astelehenean izanen da, 19:00etan, baina truke guneak astelehenetik ortzirralera egonen dira zabalik, 18:00etatik 21:00etara.

Hauexek izanen dira truke guneak:

Aldezar => Aldapa, 3-5

Ekologistak Martxan => San Agustin, 24

OCSI => Navarrerria, 27

Truke guneen funtzionamendua:

Edozein pertsonak edozein objektu ekartzen ahal du (bere ustez gehiago balio izanen ez zaion objektua, baina bertze pertsona batendako baliogarria izaten ahal dena), eta bertze objektu baten truke aldatu. Objektu guztiek balio bera izanen dute; hau da, objektu bat bertze baten truke, bi objektu bertze biren truke..

Objektuak hiru lokaletako batean uzten ahal dira, baina ez da nahitaez lokal horretatik ezer hartu behar; nahi izanez gero, bertze bi lokaletatik hartzen ahal da trukatzeko objektua. Hori hala izan dadin, objektuen truke txartel bat emanen da, eta txartel horrekin bertze objektu bat hartuko da.

Apirilak 21, asteartea: Kontsumo arduratsuari buruzko hainbat ikuspegi aurkezteko mahai-ingurua:

- Landare (nekazaritza ekologikoa)
- OCSI (bidezko merkataritza)
- Denok Animaliak (talde beganoa)
- Denboraren Bankua (gaitasunen, zerbitzuen... elkartrukatzea)
- Merkatarien Elkarte (auzoko kontsumoa)

19:30ean, Civivox Navarrerrian (Oscus zaharra).

Apirilak 22, asteazkena: Mauje Cañadaren (IPES) hitzaldia, kontsumo arduratsuari buruz.

19:30ean, Auzoenean.

Apirilak 23, ortzeguna: "Nosotros alimentamos el mundo" dokumentalaren pantailaratzea.

20:00etan, Zabaldin, Zine Pobreza zikloaren barnean.

Apirilak 24, ortziralea: Truke-partya, 20:00etan, Zabaldin. Bi orduz, eta musikaren laguntzaz, bestara bilduriko pertsonen aukera izanen dute zuzenean bertze pertsonekin gauzak trukatzeko. Beraz, nahitaezkoa da bestara trukatzeko objektuen batekin joatea.

Apirilak 25, larunbata: Truke gunea Mercaderes karrikan. Hiru truke gunek elkartuko ditugu, eta karrikara aterako. Gaitera, 11:00etan hurrei zuzenduriko birziklatze lantegia izanen da (Bitartean eta Aldezar kolektiboen eskutik) eta, 12:00etan, kontsumo arduratsuari buruzko kale animazioa izanen da, Yarlekuren eskutik.

Arte arduratsuari buruzko erakusketa: Astelehenetik ortziralerara, Auzoenean, erakusketa egonen da arte arduratsuari buruzko lehiaketara aurkezturiko artelanekin. Lanek arte arduratsua izan behar zuten gaitzat, edota material birziklatuekin egon behar zuten eginak.

Erakusketa bisitatzen dutenek aukera izanen dute gustuko lanen alde bozkatzeko. Aste hondarrean irabazleen izenak ezagutaraziko ditugu. Hauek dira sariak: janaria edo afaria Portal de Descalzos jatetxean; produktu ekologisten eta bidezko merkataritzako produktuen saskia; Ecologista aldizkariko urtebeteko harpidetza.

info + => Asier (635808141)
Eneko (678203929)